

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **Kaldereroak, inudeak eta artzainak Donostiara iritsiko dira asteburu honetan**

*Grosetako kaldereroen konpartsak Kepa Madariaga, joan den udan hil zen  
lehendakaria, omenduko du*

Hungariako kaldereroen konpartsa tradizionalak hartuko ditu Donostiako Parte Zaharreko kaleak datorren larunbatean, otsailaren 1ean. 21:30etik aurrera, 19 tribuetako 400 parte-hartzailek zartaginak joko dituzte Raimundo Sarrieguiaren piezen edo Victoriano Iraolaren “Begi urdin bat” lanaren erritmoan.

Konpartsa tradizionalak, gainera, gaueko 22:00etatik aurrera ezarriko du bere kanpalekua Konstituzio plazan, eta han Konpartsaren Erreginak hitzaldi bat emango dio Donostiako herriari, eta erreperitorio guztia interpretatuko du.

Konpartsa tradizional horrek Alde Zaharrean egiten duen desfileaz gain, kaldereroak Gros, Erdialdea, Egia, Amara Berri, Amara, Herrera, Antigua edo Loiola auzoetara ere iritsiko dira, hainbat ikastetxe eta elkarteri esker.

#### **Kepa Madariagari omenaldia**

Aurten, Grosetako kaldereroen konpartsak omenaldia egingo dio udan hil zen Kepa Madariaga presidente zenari. Ekitaldia larunbatean bertan izango da, 19:15ean, Txofre plazan. Omenaldi honetan, Axular ikastolako dantza-taldeak Joxemari Oiarzabalek idatzitako konposizio bat dantzatuko du, eta konpartsaren abesbatzak Madariagari eskainitako bertso bat abestuko du, “Begi urdin bat” abestiaren moldaketa batean.

#### **Inude eta artzainak**

Kresala elkarteko “Inude eta artzaiak” konpartsaren txanda igandean iritsiko da. Hiriaren alde zaharretik ibiliko da 12:00etatik aurrera. Konpartsa hau 180 parte-hartzailek osatzen dute (90 emakume eta 90 gizon) eta The Joselontxos´s txaranga izango du lagun.

Ohikoa denez, goizean zehar hiru konpartsa gehiago ibiliko dira Gros, Amara eta Antigua auzoetan.

*Donostia, 2020ko urtarrilaren 29a*